eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea
MEDIKUNTZA ETA ERIZAINTZA FAKULTATEA
FACULTAD DE MEDICINA Y ENFERMERÍA
DONOSTIAKO ATALA
SECCIÓN DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

2019/2020 ikasturtea

FIBROSI KISTIKOA BERRIKI DIAGNOSTIKATU DIETEN HAURREN ZAINTZAILE INFORMALEI ZUZENDURIKO OSASUN-HEZKUNTZA PROGRAMA

ANE OCHOTECO MAYA

a la Calidad de Gestión 2010

LABURPENA

Sarrera: Fibrosi Kistikoa (FK) sortzetiko endekapenezko gaixotasun genetikoa da eta gorputzeko sistema asko kaltetzen ditu. Hala ere, galera handienak arnas sisteman eragiten ditu. Kaukasoar populazioan gaixotasun genetiko hilgarri ohikoena da eta arraza zuriko haurren biriketako arazo kronikoen eragile nagusiena ere bada. Azken urteetan, FK duten pertsonen bizi kalitatea asko hobetu da, eta horrekin batera, bizi-itxaropena luzatu ere. Horretan, diagnostiko goiztiarrak, tratamendu berritzaileek eta FK unitateetako diziplina anitzeko lantaldeak eragina izan dute. Azken horretan, erizainak, bereziki, paper garrantzitsua du. Izan ere, gaixotasunak haurren eta horien familiarren (zaintzaile informalak) bizitzan sekulako inpaktua eragin dezake. Prozesu luze eta konplexu horri aurre egiteko, erizainak, osasun-hezkuntzaren bidez, familiarrei haurrei eman beharreko zainketak aurkeztuko die baita gaixotasunari aurre egiteko estrategiak garatzeko pauta ezberdinak ere.

Helburua: lan honen helburu nagusia da FK berriki diagnostikatu dieten haurren zaintzaile informalei zuzenduriko osasun-hezkuntza programa diseinatzea.

Metodologia: gaiari buruzko ebidentzia zientifiko berriena lortzeko bilaketa bibliografikoa egin da. Deskriptoreak (DeCS eta MeSH) eta hitz gakoak definitu dira. Bilaketa bibliografikoa 5 datu-baseetan egin da: Biblioteca Virtual en Salud (BVS), Medes, Dialnet plus, Pubmed eta Cuiden plus. Bertan, hainbat iragazki erabili dira emaitzak murrizteko. Artikuluak aukeratzeko barneratze- eta baztertze-irizpideak aplikatu dira. Irizpideak betetzen dituzten artikuluen laburpena irakurri da. Azkenik, lana egiteko baliagarriak diren artikuluak aukeratu dira. Datu-baseez gain, hainbat web orrialde ere erabili dira informazioa lortzeko.

Plangintza: osasun-hezkuntza programa honek zaintzaile informalek FKren inguruko ezagutzak lortzea eta jokabideak eta gaitasunak garatzea du helburu. Horretarako, 4 saiotan banatuta dauden 5 gai multzo landuko dira. Horiek garatzeko hainbat jarduera prestatu dira. Programa, Euskadiko Fibrosi Kistikoa Elkartearen erreferentzia zentroan, Donostian, emango da eta FK unitate bateko erizain espezialista batek bideratuko du.

Ebaluazioa: ebaluazioa azken saioaren amaieran egingo da. Partaideek emaitzak, prozesua eta egitura eta baliabideak ebaluatuko dituzte, osasun agenteak, aldiz, prozesua eta egitura eta baliabideak. Ebaluazioa egiteko 3 galdetegi prestatu dira.

Hitz-gakoak: *“Fibrosi Kistikoa”, “haurra”, “zaintzaile informala”, “erizaintza”, “osasun-hezkuntza”.*

AURKIBIDEA

1. SARRERA 1
2. HELBURUAK 6
3. METODOLOGIA 6
4. PLANGINTZA: OSASUN-HEZKUNTZA PROGRAMA 8
   4.1 TALDE DIANA 8
   4.2 HELBURU PEDAGOGIKOAK 9
   4.3 METODOLOGIA PEDAGOGIKOA 10
   4.4 EDUKI PEDAGOGIKOAK 11
   4.5 DENBORALIZAZIOA ETA KRONOGRAMA 13
   4.6 OSASUN AGENTEA ETA LEKUA 18
   4.7 BALIABIDE MATERIALAK/PERTSONALAK ETA EBALUAZIO EKONOMIKOA 19
   4.8 MATERIAL DIDAKTIKOA 20
5. OSASUN-HEZKUNTZA PROGRAMAREN EBALUAZIOA 21
6. EKARPEN PERTSONALA 22
7. BIBLIOGRAFIA 24
8. ERANSKINAK 29
   1. eranskina → Bilaketa bibliografikoaren emaitzak. 29
   2. eranskina → Osasun-hezkuntza programaren kartela.. 31
   3. eranskina → Osasun-hezkuntza programaren triptikoa. 33
   4. eranskina → 1. gai multzoko jardueren azalpena. 35
   5. eranskina → Galdetegia 37
   6. eranskina → 2. gai multzoko jardueren azalpena. 39
   7. eranskina → 3. gai multzoko jardueren azalpena (1. zatia). 41
   8. eranskina → Kaloria baxuko eta altuko elikagaien izenak. 43
   9. eranskina → Elikagaien aporte kaloriko handitzeko gomendioak. 45
   10. eranskina → Entzima pankreatikoen, bitaminen eta mineralen erabilerarekin zerikusia duten esaldiak 47
   11. eranskina → 3. gai multzoko jardueren azalpena (2. zatia). 49
   12. eranskina → Tratamenduaren erregistro-taulak. 51
   13. eranskina → 4. gai multzoko jardueren azalpena. 53
   14. eranskina → Higiene neurrien esaldiak 55
   15. eranskina → 5. gai multzoko jardueren azalpena. 57
   16. eranskina → Galdetegia. 59
   17. eranskina → Osasun-hezkuntza programaren ebaluazioa (partaideak). 61
   18. eranskina → Osasun-hezkuntza programaren ebaluazioa (osasun agentea)..... 63
   19. eranskina → Material didaktikoa.. 65

TAULEN AURKIBIDEA

1. taula: saio bakoitzean landuko diren edukiak eta helburuak..... 13
2. taula: osasun-hezkuntza programaren kronograma. 17

1. SARRERA

Fibrosi Kistikoa (FK) sortzetiko endekapenezko gaixotasun genetikoa da eta gorputzeko sistema asko kaltetzen ditu. Hala ere, galera handienak arnas sisteman eragiten ditu (1).

Gaixotasun autosomiko errezesiboa da, hau da, gaixotasuna izateko bi gurasoen gene akastuna heredatu behar da. Aldiz, gene akastun bat eta akatsik gabeko gene bat heredatzen bada pertsona gaixotasunaren eramaile bilakatuko da (2).

CFTR (*Cystic Fibrosis Transmembrane conductance Regulator*) proteina kodifikatzen duen genean ematen den mutazioaren emaitza da. Gene hori 7. kromosomaren beso luzean aurkitzen da. Gaur egun arte, genearen 1.900 mutazio baino gehiago ezagutzen dira, mutazio mota ezagunena F508del izanik. CFTR proteinak zelula epitelialetan kloro ioien mugimenduak erregulatzen ditu eta horrez gain, beste ioien garraioaz arduratzen diren kanalen erregulazioan ere parte hartzen du. Proteina hori arnas aparatuko, digestio aparatuko eta aparatu urogenitaleko zelula epitelialetan aurkitzen da. Mutazioa dela medio, ioien garraioan anomalia ematen da, kloroaren jariaketan akatsak eragiten ditu eta sodioaren gehiegizko xurgapena gertatzen da. Hori dela eta, lodia eta lirdingatsua den mukia sortzen da eta organo ezberdinen konduktuak buxatzen eta infektatzen dira (3).

Gaixotasunak gehienbat arnas aparatua erasotzen du. Arnasbideetan pilatzen den mukiak arnasbideak infektatzen eta pixkanaka-pixkanaka suntsitzen ditu. Suntsipen hori era progresibo batean ematen da. Biriketako gaixotasuna FK-k eraginda ematen diren heriotzen kausa nagusia da. Arnas aparatuaz gain, digestio aparatua ere kaltetzen du, konplikazio nagusiena gutxiegitasun pankreatikoa izanik. Horrek, luzera, malnutrizioa eragiten du. Horrez gain, kloro eta bikarbonato asko duen izerdia eta gizonezkoetan ernalezintasuna sortzen du. Nahiz eta, pertsona askok aipatutako adierazpen kliniko horiek partekatu oso gaixotasun pertsonala eta berezia izaten jarraitzen du eman daitezkeen mutazio sorta zabalagatik (3, 4).

Osasun publikoko arazo garrantzitsua da, izan ere, kaukasoar populazioan gaixotasun genetiko hilgarri ohikoena da eta arraza zuriko haurren biriketako arazo kronikoen eragile nagusiena ere bada (1).

Mundu mailan, gutxi gorabehera 80.000 pertsonek dute FK (4). Europako Fibrosi Kistikoaren Elkarteko pazienteen erregistroaren arabera, Europan, 2017. urtean, 48.204 (% 48.7 haurrak eta % 51.3 helduak) FKdun pertsona erregistratu ziren (5). Urtez urte zifrak aldatzen badira ere, Espainiako Fibrosi Kistikoaren Federazioaren arabera estimatzen da, Espainian, 2.500 kasu daudela, 35 pertsonetatik bat FKren eramaile osasuntsua dela eta 5.000 jaioberrietatik batek gaixotasuna daukala (6).

Mortalitateari dagokionez, Europan, 2008-2013 urte bitartean, FKgatik 1.754 pertsonek galdu zuten bizitza (7) eta Espainian, 1981-2016 urte bitartean, 1.002 pertsonek (8).

Hala ere, azken urteetan FKren inguruko emaitzak eta FKdun populazioaren ezaugarriak asko aldatu dira. Aldaketa horren eragileak diagnostiko goiztiarra, tratamenduan egindako aurrerapenak eta FK unitateetako diziplina anitzeko lantaldearen esku-hartzeak dira. Horrek guztiak, haurren bizi itxaropena luzatzea eta gaixotasuna adin heldura ailegatzea eragin du. Bizi itxaropenaren luzatze horrek gaixoak behar dituen zainketen konplexutasuna handitzea ere ekarri du (4).

Gaixotasuna haurraren bizitzaren lehenengo hilabeteetan egindako *screening*-ari esker diagnostikatzen da eta momentu horretan bertan tratamenduarekin hasten da. Tratamendua oso zorrozki jarraitu behar da: arnas fisioterapia egunero egin, medikazio ezberdin asko hartu eta elikaduran aldaketak egin (9, 10).

Txikitan diagnostikatzen den gaixotasuna denez, etapa horretan, tratamenduaren jarraipenaren eta atxikimenduaren eta gaixotasunak eskatzen dituen zainketen ardura, orokorrean, gurasoek izaten dute. Horiek zaintzaile informal izena hartzen dute (10).

Zaintzaile informalak zainketen beharra duten familiako kideei edota ingurukoei laguntza ez profesionala ematen dieten pertsonak dira. Ez dira osasun langileak eta beraz, zainketa horiek emateko ez daude heziak. Gizartean funtzio ekonomiko eta sozial garrantzitsua betetzen dute. Izan ere, gaixotasunak sortzen dituen gastuen ehuneko handienetako bat, haurtzaroan bereziki, zainketa informalek dute, hau da, zaintzaile informalek eskaintzen dituzten zainketek (11, 12).

FKren diagnostikoa haurraren gurasoen bizitzan prozesu luze eta konplexu baten abiapuntua da. Gaixotasunak bai haurrarengan bai gainerako familiako kideengan

inpaktu handia eragin dezake. Guztiak, gaixotasunaren etapa bakoitzeko ezaugarrietara egokitu beharko dira. Orokorrean, gaixotasunak aldaketa estrukturalak, prozesualak eta emozionalak eragiten ditu (13).

Familia gaixotasunera egokitu behar den heinean, bizitzaren egunerokotasunera ere egokitu behar da eta rol eta funtzio berriak barneratu behar ditu. Eginkizun horietako bat, zaintzaile nagusiaren esleipena da. Zaintzaile nagusia, haur gaixoaren zainketa prozesuaren ardura handiena bere gain hartzen duen pertsona (ez profesionala) da. Orokorrean, haurren amak izaten dira ardura hori hartzen dutenak. Ardura hori hartzeak ondorioak izan ditzake, horien arten bat, zaintzaile printzipalaren gainkarga (12, 13).

Zainketen jarraipen egokia bermatzeko, lanean ari diren zaintzaile nagusiak, lana uztera edota lan orduak gutxitzera behartuak ikus daitezke. Lan egiten ez dutenek, orokorrean, eguneko 24 orduak haurraren zainketari eskaintzen dizkiote eta beraz, askok, beraien beharrak eta nahiak alde batera uzten dituzte. Beste bikotekideek, aldiz, normalean, lanean jarraitzen dute gaixotasunak sortzen dituen gastuei eta etxeko gainerako kostuei aurre egiteko (12).

Gaixotasunak familia asko etxea haurraren beharretara egokitzera (haurraren segurtasuna eta erosotasuna bermatzeko) edota zenbait kasutan, etxebizitzaz aldatzera (osasun baliabideak hurbil izateko) behar ditzake (14). Erlazio sozialak ere kaltetuak (plan asko galdu, lagunekin gutxiago geratu, etab.) ikus daitezke tratamenduaren egunerokotasunagatik eta gaixotasunak sor ditzaken ezustekoei beldur izateagatik (15).

FK-k familiaren kanpo funtzionamenduaz gain barne funtzionamendua ere erasan dezake. Izan ere, familia askorentzat lehenengo seme-alaba edota gaixotasun kroniko batekin lehenengo aldia izan daiteke. Ezjakintasun eta ezagutza falta horrek, gurasoen artean liskarrak eta banaketak sor ditzake (15-17). Horrez gain, zaintzaile printzipalaren eta haur gaixoaren artean eratzen den harreman estuak haur gaixoaren anai-arrebak baztertuak sentitzea eta jeloskor egotea eragin dezake, gurasoen aldetik atentzio gutxiago jaso dezaketelako. Anai-arrebek ere, hartu behar ez dituzten karguak har ditzakete, haur gaixoaren begiratzea eta bere zainketan parte hartzea adibidez (18, 19).

Familiarrez eta anai-arrebez gain, gaixotasuna duen haurra ere prozesu berrira egokitu behar da. FK duten haurrak beraien kideen parekoak ez direla jabetzen dira, hau da, txikiagoak eta argalagoak dira eta azkarrago nekatzen dira, orokorrean, ahulagoak

dira. Ezberdintasun fisiko horrengatik kideen artean baztertuak senti daitezke. Arrazoi hori dela eta, erlazioak sortzeko momentuan zailtasunak izan ditzakete eta ondorioz, sozialki isola daitezke (2, 20).

Ematen diren aldaketa guzti horiei familiako kideek modu batean edo bestean aurre egiten diete. Ohikoa izaten da diagnostikoaren momentuan eta ondorengo egunetan sentimendu negatiboak (pena, beldurra, inpotentzia, haserrea, erruduntasuna, etab.) izatea. Baina oso garrantzitsua da pixkanaka-pixkanaka diagnostikoa onartzea eta gaixotasuna ezagutzen hastea. Batzuek lortzen dute baina beste askok ez. Hori dela eta, azken horiek, luzera, arazo psikologikoak (depresioa eta antsietatea) gara ditzakete (13, 21).

Gaixotasunak haurrengan eta horien familiarrengan eragiten duen inpaktua nabarmentzekoa da. Horri eta gaixotasunak eskatzen dituen zainketa guztiei aurre egitea erronka handia izan daiteke. Gainera, gaixotasuna prozesu dinamiko bat denez, aldaketa iraunkorrak ematen dira eta etengabeko egokitzapena eskatzen du (21). Lehen esan bezala, familiarrak, zaintzaile informalak diren heinean, ez daude heziak zainketa horiek emateko. Hori dela eta, ezinbestekoa dute osasun erreferente bat izatea gaixotasunak lehenengo egunetan sortzen duen inpaktuaren maneiuan laguntzeko eta egunerokotasunerako egokitzapenean bideratzeko. Osasun erreferente hori, normalean, FK unitateetako erizain espezialista izaten da (2, 22).

Erizainak lau eremu hauetan lan egiteko prestakuntza jaso du: kudeaketan, ikerketan, asistentzian eta heziketan (22).

Erizaina FK unitateetako koordinatzailea (kudeaketa funtzioa) da. Unitatearen erdigunea da ere, izan ere, gaixoaren, familiaren eta unitateko espezialisten arteko komunikatzaile printzipala da. Gaixotasunaren inguruan ezagutza asko ditu. Horiek etengabe eguneratu (ikerketa funtzioa) behar ditu FK gaixotasun sendaezin bat denez eman beharreko zainketak gaurkotuak eta ebidentzian oinarrituak egoteak berebiziko garrantzia duelako (2, 22).

Erizainak harreman gaitasuna izatea ere garrantzitsua da. Horrek, gaixoaren eta familiarren barru-barruko sentimenduak, arazoak, kezkatzen diena, etab. ezagutzea ahalbidetzen dio. Hori dela eta, erizaina eta gaixoaren eta horren familiarren artean harreman estua sortzen da (2, 22).

FK duen haurraren eta horren familiarren osasun beharrak identifikatzeaz ere arduratuko da eta horiek asetzeko beharrezko zainketak (asistentzia funtzioa) emango dizkie. Gainera, pertsonak hezteko prestatua dagoenez gaixoari eta horren familiarrei gaixotasun prozesua aurrera eramateko osasun-hezkuntza (heziketa funtzioa) emango die (2, 22).

Osasun-hezkuntza, Osasunaren Munduko Erakundearen (OME) arabera, biztanleriak osasunaren inguruan dituen ezagutzak handitzeko eta osasuna sustatzeko baloreak, jarrerak eta trebetasunak garatzeko diseinatutako hezkuntza jardueren multzoa da (23, 24).

Askotan, osasun arazoaren kausa nagusia pertsonaren jarrera izaten da, baina, aldi berean, konponbide nagusia ere. Hori dela eta, jarreran aldaketak eginez, arazo asko konpon edo saihets daitezke. Aldaketak egiteko orduan pertsonen jarreretan eragina duten faktoreak (biologikoak, pertsonalak eta ingurunekoak) kontuan hartu behar dira. Izan ere, pertsonak hartzen dituen erabakiak horien araberakoak dira. Beraz, osasun-hezkuntza programa diseinatzeko orduan hartzailearen ezaugarriak (biologikoak, psikologikoak eta sozialak) kontuan hartu behar dira, kasu honetan, zaintzaile informalen ezaugarriak (23, 24).

Osasun-hezkuntza programaren hartzaileek osasun-hezkuntzari esker honakoa lor dezakete (13):

- Gaixotasuna onartzea.
- Gaixotasuna egoki maneiatzea eta haurrei beharrezkoak dituzten zainketak eskaintzea.
- Tratamenduan aktiboki parte hartzea.
- Sentimendu negatiboak (estresa, antsietatea, etab.) kontrolatzea eta arazoei jarrera positiboarekin aurre egitea.
- Osasun profesionalekin kolaboratzea.
- Arazoei aurre egiteko errekurtsoak izatea.
- Informazio egokia bilatzea.
- Haurrei emozioak kontrolatzen laguntzea.
- Haurrei gaixotasuna maneiatzeko estrategiak garatzen laguntzea.

Hori guztia kontuan hartuta, zaintzaile informalek, gaixotasunak diagnostikoaren momentuan kendutako familia bizitzaren kontrola berreskura eta gaixotasunari aurre egiteko esperantza lor dezakete (9).

Ikusi den moduan FK-k gaixotasuna pairatzen duen haurrengan eta horien familiarrengan inpaktu multidimentsional handia eragin dezake. Orokorrean, diagnostikoaren momentua eta ondorengo egunak, oso gogorrak izaten dira beraientzat. Ezezaguna den gaixotasun bati egin behar diote aurre eta gaixotasunarekin eta horrek suposatzen dituen aldaketa guztiekin elkarbizitzen eta horietara egokitzen jakin behar dute. Beraz, familiarrek gaixotasun prozesuan lagunduko dien osasun erreferente baten esku-hartzea ezinbestekoa dute. Horretaz, FK unitateko erizain espezialista arduratuko da. Horrek, pertsonen ezagutzak handitzeko eta jarreretan eragiteko baliagarria den tresna garrantzitsu bat erabiliko du, osasun-hezkuntza hain zuzen ere.

Hori dela eta, FK berriki diagnostikatu dieten haurren zaintzaile informalei zuzenduriko erizain batek gidatutako osasun-hezkuntza programa proposatzen da.

2. HELBURUAK

Lan honen helburu nagusia da FK berriki diagnostikatu dieten haurren zaintzaile informalei zuzenduriko osasun-hezkuntza programa diseinatzea. Horretarako, helburu zehatz hauek planteatu dira:

- FK aztertzearen garrantzia justifikatzea.
- Gaixotasunak haurrengan eta horien familiarrengan eragin dezakeen inpaktua aztertzea.
- Zaintzaile informalen ezaugarriak eta rola definitzea.
- Erizainak gaixotasunean duen papera zehaztea.
- Osasun-hezkuntza programaren egitea justifikatzea.
- FK berriki diagnostikatu dieten haurren zaintzaile informalei egunerokotasunean lagun diezaiokeen material didaktikoa garatzea.

3. METODOLOGIA

Gaiari buruzko azken ebidentzia zientifikoa erabiltzeko asmoz bilaketa bibliografikoa (2019ko azaroaren 25a eta 2020ko martxoaren 4a bitartean) egin da. Bilaketa bibliografikoa errazteko eta zehazteko DeCS (Descriptores en Ciencias de la Salud) eta MeSH (Medical Subject Headings) deskriptoreak eta hitz-gakoak definitu dira:

- *DeCS*: “enfermedad crónica”, “niño”, “familia” eta “enfermería”.
- *MeSH*: “Cystic Fibrosis”, “child”, “family”, “parents”, “nursing”, “mortality”, “Cystic Fibrosis Transmembrane Conductance Regulator” eta “therapeutics”.

- *Hitz-gakoak*: “Fibrosis Quística”, “pediatría”, “enfermedad crónica”, “niño”, “familia” eta “enfermería”.

Behin deskriptoreak eta hitz gakoak zehaztuta bilaketa bibliografikoa (ikus 1. eranskina) egin da 5 datu-base ezberdinetan: Biblioteca Vitual en Salud (BVS), Medes, Dialnet plus, Pubmed eta Cuiden plus. Bilaketa zehatzagoa izateko “AND” operadore boolearra erabili da. Horrez gain, bilaketa emaitzen kopurua murrizteko datu-baseek eskaintzen dituzten honako iragazki hauek erabili dira:

- BVS: testu osoa erabilgarri, hizkuntza, urtea eta artikulu mota.
- Medes: iragazkiak jartzeko ez du aukerarik eman. Hala ere, artikuluak aukeratzeko orduan hauek kontuan hartu dira: testu osoa erabilgarri, hizkuntza eta urtea.
- Dialnet plus: testu osoa erabilgarri, hizkuntza eta urtea.
- Pubmed: testu osoa dohain, urtea, espeziea eta artikulu mota.
- Cuiden plus: testu osoa erabilgarri eta urtea.

Artikuluak aukeratzeko garaian honako barneratze- eta baztertze-irizpide hauek aplikatu dira:

- Barneratze-irizpideak:
  - FK edota gaixotasun kroniko pediatrikoa gai nagusitzat duten artikuluak.
  - Zaintzaile informalen ezaugarriak eta rola lantzen dituzten artikuluak.
  - Gaixotasunak haurren eta horien familiarren bizitzan eragiten dituen aldaketak lantzen dituzten artikuluak.
  - Gaixotasunak haurren eta horien familiarren bizitzan eragiten dituen aldaketei aurre egiteko estrategiak lantzen dituzten artikuluak.
  - Erizainak gaixotasunean duen papera lantzen duten artikuluak.
- Baztertze-irizpideak:
  - Nerabeetan eta helduetan zentratzen diren artikuluak.
  - Fibrosi kistikoak eragindako ondorio medikoak lantzen dituzten artikuluak.
  - Fibrosi kistikoaren tratamendu farmakologikoa lantzen duten artikuluak.

Aipatutako irizpide horiek betetzen dituzten artikuluen laburpena irakurri da eta lana egiteko baliagarriak diren artikuluak aukeratu dira. Zenbait kasutan artikulu osoak lortzeko *Google Académico* bilatzaile motorra erabili da.

Aipatutako datu-baseez gain, informazio gehiago lortzeko hainbat web orrialde ere erabili dira: “Federación Española de Fibrosis Quística”, “Asociación Fibrosis

Quística Euskadi" "European Cystic Fibrosis Society", "Gobierno de Navarra" eta "Organización Mundial de la Salud". Bertan argitaratutako hainbat eskuliburu erabili dira.

4. PLANGINTZA: OSASUN-HEZKUNTZA PROGRAMA

4.1 TALDE DIANA

Osasun-hezkuntza programaren talde diana FK berriki diagnostikatu dieten haurren zaintzaile informalak dira.

FK txikitan diagnostikatzen da eta diziplina handia izatea eskatzen du. Haurra adin horretan oraindik ez da gai bere zainketaz arduratzeko. Hori dela eta, tratamenduaren jarraipenaren eta atxikimenduaren eta gaixotasunak eskatzen dituen zainketen ardura zaintzaile informalek izaten dute, hau da, normalean, gurasoek hartzen dute erantzukizun hori. Gurasoak zaintzaile informalak diren heinean ez daude heziak zainketa horiek emateko. Beraz, ezinbestekoa dute osasun erreferente bat izatea eta horrek, haurrak beharrezkoak dituen zainketen inguruko osasun-hezkuntza ematea (10-12).

Programa orokorrean haurraren zainketan parte hartzen duten zaintzaile informalei zuzentzen da eta ez soilik zaintzaile nagusiei. Gaixotasunak konplexuak diren zainketa asko (arnas fisioterapia egunero egin, medikazio ezberdin asko hartu, elikaduran aldaketak egin, etab.) eskatzen ditu. Beraz, garrantzitsua da horiek partekatzea zaintzaile nagusiaren gainkarga ekiditeko eta haurrari kalitatezko zainketak emateko.

Zaintzaile informal horiek antzemateko eta osasun-hezkuntza programaren berri izateko Euskadiko Fibrosi Kistikoa Elkartearen erreferentzia zentroan (Donostian) kartelak (ikus 2. eranskina) jarriko dira eta informazio gehiago nahi duenak barruan triptikoak (ikus 3. eranskina) izango ditu. Horrez gain, elkartekoek bertako bazkide berriei etxera triptiko hori iritsiaraziko diete saioaren berri emanez.

Bai kartelean bai triptikoan posta elektroniko bat jarriko da eta interesatuek bertara mezu bat bidali beharko dute, ikastaroan parte hartu nahi dutela esanez. Ikastaroko taldeak 12 pertsonatakoak izango dira. Gehiagok izena emanez gero hurrengo saio baterako gordeko zaie izen ematea. Izen ematea zentralizatzeaz elkartea arduratuko da.

4.2 HELBURU PEDAGOGIKOAK

Osasun-hezkuntzako helburu pedagogikoak planteatu aurretik, talde dianaren osasun beharrak identifikatu dira. Horretarako, Euskadiko Fibrosi Kistikoa Elkarteak emandako informazioa (bertako erabiltzaileek gaixotasunaren lehenengo etapan izandako zalantzak, jakin-nahiak, jarrerak, etab.) baliagarria izan da.

Informazio horretatik abiatuz erizaintza diagnostikoak eta horietako bakoitzari dagozkion NOC (Nursing Outcome Classification) hauek ondorioztatu dira (25):

- <u>Diagnostiko erreala</u>
  - Fibrosi kistikoaren inguruko ezagutza urria [00126]:
    - Fibrosi kistikoaren inguruko ezagutza urria, informazio eskasarekin erlazionatua eta zer egin ez jakitearekin adierazten dena.

      NOCak:
      - (1600) Atxikimendu jarrera → Errehabilitazioa, errekuperazioa eta ongizatea sustatzeko norbere kabuz hasitako ekintzak.
      - (1601) Betetze jokabidea → Osasun profesionalen aholkuak jarraitzeko eta betetzeko ekintza pertsonalak.
      - (1802) Ezagutzak: preskribatutako dieta → Osasun profesionalak gomendatuko dietaren inguruan adierazitako ezagutza maila.
      - (1808) Ezagutzak: medikazioa → Medikazioaren erabilera seguruaren inguruan adierazitako ezagutza maila.
      - (1813) Ezagutzak: erregimen terapeutikoa → Erregimen terapeutikoaren inguruan adierazitako ezagutza maila.
      - (1814) Ezagutzak: prozedura terapeutikoa → Prozedura terapeutiko jakinen inguruan adierazitako ezagutza maila.

- <u>Arriskuzko diagnostikoa</u>
  - Zaintzaile rolaren nekadura arriskua [00062]
    - Zaintzaile rolaren nekadura arriskua, isolamendu sozialarekin, erresilientzia emozional urriarekin eta egoerari aurre egiteko estrategia ez eraginkorrekin erlazionatuta.

      NOCak:
      - (1204) Oreka emozionala → Gailentzen den egoera emozionalera egoki moldatzea.

- (1302) Arazoei aurre egitea → Gizabanakoaren errekurtsoak proban jartzen dituzten faktore estresagarriak kontrolatzeko ekintza pertsonalak.
- (1309) Erresilientzia pertsonala → Arazo baten ondoren gizabanakoaren egokitzapena.
- (1504) Gizarte laguntza → Ingurukoengandik laguntza jasotzea.
- (1604) Aisialdiko jardueretan parte hartzea → Ongizatea sustatzeko jarduera lasaigarriak eta interesgarriak erabiltzea.
- (1635) Denbora pertsonalaren kudeaketa → Denbora jakin batean konpromisoak betetzeko ekintza pertsonalak.

Erizaintza diagnostiko horiei aurre egiteko horien NOCetatik abiatuz helburu pedagogiko hauek planteatu dira:

- Helburu orokorra: FK berriki diagnostikatu dieten haurren zaintzaile informalek FKren inguruko ezagutzak lortzea eta jokabideak eta gaitasunak garatzea.
- Helburu zehatzak: FK berriki diagnostikatu dieten haurren zaintzaile informalek osasun-hezkuntza programa amaierarako hurrengoa lortuko dute:
  1. Gaixotasunak eragiten dituen ondorio psikologikoak eta sozialak identifikatzea eta horiei aurre egiteko estrategiak zerrendatzea.
  2. Tratamendua errazten duten erremintak deskribatzea eta praktikan jartzea.
  3. Tratamenduaren atxikimenduan eragina duten faktoreak identifikatzea eta atxikimendua hobetzeko estrategiak zerrendatzea.
  4. Egunerokotasunean jarraitu beharreko zainketak deskribatzea.

Helburu pedagogiko horiek, gero, partaideen ezaugarrietara egokituko dira. Egokitzapenean lehenengo saioan pasako zaien galdetegian ateratako emaitzek lagunduko dute.

4.3 METODOLOGIA PEDAGOGIKOA

Osasun-hezkuntza programaren partaideek planteatutako helburuak eskuratzeko eta ikaskuntza esanguratsua lortzeko metodo eta teknika pedagogiko aktiboak erabili dira (24).

Lehenik eta behin, elkartze-teknikez lagundurik, osasun agenteak eta partaideak elkar ezagutuko dira. Izan ere, lehenengo kontaktuak berebiziko garrantzia du. Horrela, konfiantzazko lan giroa sortzen da eta parte hartzea bultzatzea eta partaideek beraien sentimenduak, emozioak, bizipenak, etab. adieraztea errazagoa da. Horretan ere

ikastaroko taldea txikia (gehienez 12 pertsona) izateak laguntzen du. Gainera, talde txikiek partaideengana hobeto ailegatzea eta horien praktikak hobeto gainbegiratzea eta kontrolatzea ahalbidetzen du.

Programan zehar beste teknika batzuk ere erabiliko dira. Ikerketa-teknikekin, partaideek dagokion gaiaren inguruan dituzten ezagutzak, jarrerak eta gaitasunak identifikatuko dira eta sentimenduak adieraziko eta antolatuko dituzte. Horretarako, "galdetegiak" eta "ideia zaparrada" teknikak erabiliko dira. Ondoren, esposizio-teknikak, gaiaren inguruan duten informazioa berrantolatzeko, osatzeko eta kontrastatzeko baliagarriak izango dira. "Azalpena diskusioarekin" metodoarekin hori lortuko da.

Horrez gain, analizatze-teknikak ere erabiliko dira, hots, "ariketa" eta "diskusioa" teknikak. Horiek erabilgarriak izango dira egoera ezberdinak analizatzeko eta hausnartzeko. Azkenik, gaitasun-teknikekin, "demostrazioa entrenamenduarekin" bereziki, partaideak trebatuko dira eta gaitasunak garatuko dituzte.

4.4 EDUKI PEDAGOGIKOAK

Aurretik planteatutako helburu pedagogikoak lortzeko 5 gai multzo hauek proposatu dira. Gai multzo bakoitzean lortu nahi diren helburuak eta edukiaren azalpena planteatzen da.

- **1. GAI MULTZOA:** *"Elkar ezagutzea".*

Helburuak:

- ✓ Osasun-hezkuntza programako osasun agentea eta partaideak elkar ezagutzea.
- ✓ Partaideen ezagutzak, jarrerak eta gaitasunak identifikatzea.

Edukia:

- Harrera eta osasun agentearen eta partaideen aurkezpena egingo da.
- Partaideei galdetegi bat pasako zaie gaixotasunaren inguruan dituzten ezagutzak, jarrerak eta gaitasunak identifikatzeko. Galdetegi hori baliagarria izango da alde batetik, planteatutako helburu pedagogikoak partaideetara egokitzeko eta bestetik, osasun-hezkuntza programa jaso ondoren partaideen eboluzioa ikusteko.

- **2. GAI MULTZOA:** *"Ondorio psikologikoak eta sozialak".*

Helburua:

- ✓ Gaixotasunak eragiten dituen ondorio psikologikoak eta sozialak identifikatzea eta horiei aurre egiteko estrategiak zerrendatzea.

Edukia:

- Partaideek gaixotasunak beraiengan eragin dituen ondorio psikologikoak eta sozialak identifikatuko dituzte eta horiei aurre egiteko estrategien inguruan hausnartuko eta eztabaidatuko dute taldean.
- Erlaxazio teknika bat praktikan jarriko dute, “mindfulness” teknika hain zuzen ere.

➢ **3. GAI MULTZOA:** *“Tratamendua eta horren atxikimendua”.*

Helburuak:

✓ Tratamendua errazten duten erremintak deskribatzea eta praktikan jartzea.

✓ Tratamenduaren atxikimenduan eragina duten faktoreak identifikatzea eta atxikimendua hobetzeko estrategiak zerrendatzea.

Edukia:

- Haurraren elikadura beharrak nola asetu ezagutuko dute: dieta hiperkaloriko bat nola egin eta entzima pankreatikoak, bitaminak eta mineralak nola, noiz eta zeintzuk administratu.
- Arnasbideetako infekzioei eta hanturei aurre egiteko erabiltzen diren sendagaien inguruko pautak jasoko dituzte: sendagaien administrazio-bideak, inhalagailu ohikoen erabilera eta sendagaien administrazio sekuentzia.
- Arnas fisioterapia non egin, noiz egin eta nola erraztu daitekeen ezagutuko dute. Horrez gain, arnas fisioterapia teknika erabilienen inguruko informazioa jasoko eta praktikan jarriko dute panpina batekin.
- Tratamenduaren atxikimenduan eragina duten faktoreak eta atxikimendua hobetzeko estrategiak ezagutuko dituzte.

➢ **4. GAI MULTZOA:** *“Egunerokotasuneko zainketak”.*

Helburua:

✓ Egunerokotasunean jarraitu beharreko zainketak deskribatzea.

Edukia:

- Egunerokotasunean jarraitu behar dituzten pautak ezagutuko dituzte: luzatze-ariketak erakargarriagoak eta dibertigarriagoak nola egin, etxeko higieneari dagokionez hartu behar dituzten neurriak, higiene pertsonal egokiaren pautak eta haurrak FK duen beste pertsona batekin kontaktua izatean hartu beharreko neurriak.

➢ **5. GAI MULTZOA:** *“Gai naiz!”.*

Helburuak:

✓ Partaideen ezagutzak, jarrerak eta gaitasunak hobetu diren aztertzea.

✓ Osasun agenteak eta partaideek osasun-hezkuntza programa ebaluatzea.

✓ Material didaktikoa banatzea.

Edukia:

- Osasun-hezkuntza programaren lehenengo saioan betetako galdetegi bera osatuko dute partaideek. Horrela, izandako eboluzioa neurtuko da.
- Osasun agenteak eta partaideek galdetegi bat beteko dute osasun-hezkuntza programa ebaluatzeko.
- Osasun agenteak partaideei egunerokotasunean laguntzeko eta praktikak errazteko informazioa duen liburuxka bat emango die.

4.5 DENBORALIZAZIOA ETA KRONOGRAMA

Osasun-hezkuntza programak denetara 4 saio (ikus 1. eta 2. taula) izango ditu eta astean behin emango dira, zehazki ostiraletan. Saioek 90-110 minutu iraungo dute, tartean 10 minutuko atsedena izanik. Horien ordutegia zehazteko orduan saioak emango diren lekuaren ordutegia (astelehenetik ostiralera 9:00tik-13:00etara) kontuan hartu da.

1. taula: saio bakoitzean landuko diren edukiak eta helburuak.

SAIOAK	GAI MULTZOAK	IZENBURUA	LANDUKO DIREN HELBURUAK
1	**1. Gai multzoa**	*"Elkar ezagutzea"*	
	2. Gai multzoa	*"Ondorio psikologikoak eta sozialak"*	**1**
2	**3. Gai multzoa**	*"Tratamendua eta horren atxikimendua"*	**2**
3			**2 eta 3**
4	**4. Gai multzoa**	*"Egunerokotasuneko zainketak"*	**4**
	5. Gai multzoa	*"Gai naiz!"*	

Iturria: egite propioa.

LEHENENGO SAIOA

Iraupena: **1h 50min: 50'(1-3. jarduerak) + 10'(atsedena) + 50'(4. eta 5. jarduerak)**

❖ **1. GAI MULTZOA**: *"Elkar ezagutzea".*

Proposatutako jarduerak: (ikus 4. eranskina).

- 1. Jarduera → "Armiarma-sarea".
  - Jarduera hau baliagarria izango da osasun agentea eta partaideak elkar ezagutzeko eta konfiantzazko giro bat sortzeko.
- 2. Jarduera → "Bai ala ez".
  - Partaideek gaixotasunaren inguruan dituzten ezagutzak, jarrerak eta gaitasunak identifikatzeko galdetegi bat (ikus 5. eranskina) beteko dute.

❖ **2. GAI MULTZOA:** "*Ondorio psikologikoak eta sozialak".*

Proposatutako jarduerak: (ikus 6. eranskina).

- 3. Jarduera → "Zer sentitu eta zer utzi dut?".
  - Partaideek gaixotasunaren diagnostikoaren momentutik orain arte bizi izan dituzten sentimenduak eta alde batera utzi dituzten ekintzak identifikatuko dituzte.
- 4. Jarduera → "Estrategien bila".
  - Aurreko jardueran identifikatutako sentimenduei aurre egiteko estrategiak eta ekintzei aurre egiteko alternatibak aztertuko eta eztabaidatuko dituzte.
- 5. Jarduera → "Mindfulness".
  - Erlaxatzeko baliagarria den "mindfulness" teknika praktikan jarriko dute.

BIGARREN SAIOA

Iraupena: **1h 50min: 50'(1. eta 2. jarduerak) + 10'(atsedena) + 50'(3. eta 4. jarduerak)**

❖ **3. GAI MULTZOA:** "*Tratamendua eta horren atxikimendua".*

Proposatutako jarduerak: (ikus 7. eranskina).

- 1. Jarduera → "Baxua ala altua".
  - Kaloria baxuko eta kaloria altuko elikagaiak (ikus 8. eranskina) bereiziko dituzte.
- 2. Jarduera → "Elikagaiak aberasten".
  - Kaloria baxuko elikagaien aporte kalorikoa nola handitu planteatuko dute eta ondoren, osasun agenteak janariak aberasteko eta erakargarriagoak izateko gomendioak (ikus 9. eranskina) emango dizkie.

- 3. Jarduera → “Egia ala gezurra”.
  - Entzima pankreatikoen, bitaminen eta mineralen erabilerarekin zerikusia duten esaldiak (ikus 10. eranskina) egiaztatuko edo deuseztatuko dituzte.
- 4. Jarduera → “Gudarien azalpena”.
  - “Power Point” bidez arnasbideetako infekzioei aurre egiteko sendagaien inguruko informazioa jasoko dute.

HIRUGARREN SAIOA

Iraupena: **1h 50min: 50’(1. jarduera) + 10’(atsedena) + 50’(2. eta 3. jarduerak)**

❖ **3. GAI MULTZOA:** “*Tratamendua eta horren atxikimendua”.*

Proposatutako jarduerak: (ikus 11. eranskina).

- 1. Jarduera → “Arnas jolasak”.
  - “Power Point” bidez arnas fisioterapia praktika errazteko pautak jasoko dituzte.
- 2. Jarduera → “Ikusitakoa errepikatu”.
  - Aurreko jardueran jasotako informazioarekin eta arnas fisioterapian erabilienak diren tekniken inguruko bideoa jaso ondoren panpina batekin teknika horiek praktikan jarriko dituzte.
- 3. Jarduera → “Atxikimenduan lagundu”.
  - “Power Point” bidez tratamenduaren atxikimenduan eragina duten faktoreak eta hori hobetzeko estrategiak (ikus 12. eranskina) ezagutuko dituzte.

LAUGARREN SAIOA

Iraupena: **1h 30min: 45’(1-3. jarduerak) + 10’(atsedena) + 35’(4-6. jarduerak)**

❖ **4. GAI MULTZOA:** *“Egunerokotasuneko zainketak”.*

Proposatutako jarduerak: (ikus 13. eranskina).

- 1. Jarduera → “Luzatze-ariketak”.
  - “Power Point” bidez luzatze-ariketak erakargarriagoak eta dibertigarriagoak nola egin ezagutuko dute.
- 2. Jarduera → “Esaldiak osatu”.
  - Jarraitu behar dituzten higiene-neurrien (etxeko higienea, higiene pertsonala eta FK duten beste pertsonekin kontaktua) inguruko esaldiak (ikus 14. eranskina) osatuko dituzte.

- 3. Jarduera → “Esku garbiketa”.
    - Esku garbiketa modu egokian egiteko bideo bat jarriko zaie eta praktikan jarriko dute.

❖ **5. GAI MULTZOA:** *“Gai naiz!”.*

<u>Proposatutako jarduerak:</u> (ikus 15. eranskina).

- 4. Jarduera → “Eboluzioa”.
    - Partaideek gaixotasunaren inguruan dituzten ezagutzak, jarrerak eta gaitasunak hobetu dituzten identifikatzeko galdetegi bat (ikus 16. eranskina) beteko dute.
- 5. Jarduera → “Ebaluazioa”.
    - Partaideek eta osasun agenteak osasun-hezkuntza programa ebaluatuko dute. Horretarako, bakoitzak bere galdetegia (ikus 17. eta 18. eranskinak) beteko du.
- 6. Jarduera → “Agurra”.
    - Partaideen egunerokotasunean erabilgarria izan daitekeen liburuxka bat (ikus 19. eranskina) banatuko zaie.

2. taula: osasun-hezkuntza programaren kronograma.

SAIOAK	DATA ORDUTEGIA	LEKUA	GAI MULTZOA	JARDUERAK	IRAUPENA	OSASUN AGENTEA
1	2020/05/08 10:00-11:50	Euskadiko Fibrosi Kistikoa Elkartearen erreferentzia zentroa (Donostia)	**1. Gai multzoa** *"Elkar ezagutzea"*	"Armiarma-sarea"	10 minutu	FK unitateko erizain espezialista
				"Bai ala ez"	15 minutu	
			2. Gai multzoa *"Ondorio psikologikoak eta sozialak"*	"Zer sentitu eta zer utzi dut?"	25 minutu	
				"Estrategien bila"	40 minutu	
				"Mindfulness"	10 minutu	
2	2020/05/15 10:00-11:50		**3. Gai multzoa** *"Tratamendua eta horren atxikimendua"*	"Baxua ala altua"	15 minutu	
				"Elikagaiak aberasten"	35 minutu	
				"Egia ala gezurra"	20 minutu	
				"Gudarien azalpena"	30 minutu	
3	2020/05/22 10:00-11:50			"Arnas jolasak"	50 minutu	
				"Ikusitakoa errepikatu"	35 minutu	
				"Atxikimenduan lagundu"	15 minutu	
4	2020/05/29 10:00-11:30		**4. Gai multzoa** *"Egunerokotasuneko zainketak"*	"Luzatze-ariketak"	10 minutu	
				"Esaldiak osatu"	30 minutu	
				"Esku garbiketa"	5 minutu	
			5. Gai multzoa *"Gai naiz!"*	"Eboluzioa"	15 minutu	
				"Ebaluazioa"	15 minutu	
				"Agurra"	5 minutu	

Iturria: egite propioa. Atsedena (10 minutu)

4.6 OSASUN AGENTEA ETA LEKUA

Osasun agenteari dagokionez, saioak FK unitate bateko erizain espezialista batek emango ditu. Izan ere, erizaina unitate horietako koordinatzailea eta komunikatzaile printzipala da. Gaixotasunaren inguruan ezagutza asko ditu eta harreman gaitasun handia du. Azken horrek, gaixoaren eta familiarren barru-barruko sentimenduak, arazoak, kezkatzen diena, etab. ezagutzea ahalbidetzen du. Hori dela eta, erizaina eta gaixoaren eta horren familiarren artean harreman estua sortzen da. Horrez gain, haur gaixoaren zaintzaile informalei osasun-hezkuntza emateko beharrezko ezagutzak eta gaitasunak ditu.

Saioak emateko lekua aukeratzeko orduan lekuak honako ezaugarri hauek betetzea kontuan hartu da. Ikastaroa emateko gela nahiko handia izan behar da, 13 pertsona sartzeko modukoa. Partaide guztientzako aulkiak eta mahaiak izan behar ditu eta arbela zuri bat ere, jarduerak egiteko. Gainera, “Power Point”-ak jartzeko proiektorea eta pantaila izatea beharrezko da baita WIFI bidezko konexioa izatea ere. Horrez gain, ordenagailua erabiltzeko elektrizitate toma bat gutxienez izan behar du.

Aipatutako ezaugarri horiek Euskadiko Fibrosi Kistikoa Elkarteko gela batek betetzen ditu. Hori dela eta, elkarteko zuzendariari programa aurkeztu zaio eta kolaborazio bat sinatu da berarekin. Kolaborazio bat izanik alde bakoitzaren (elkartea eta osasun-hezkuntza programaren zuzendaria) ardurak finkatu dira:

- Elkartearen ardurak:
  - Osasun beharrak identifikatu eta ikastaroaren zuzendariari informatu.
  - Lekua jarri.
  - Osasun-hezkuntza programaren deialdia egin: kartelak ipini, elkarteko bazkide berriei saioaren berri ematen duen triptikoa etxera iritsiarazi eta izena emateak zentralizatu.
- Osasun-hezkuntza programaren zuzendariaren ardurak:
  - Osasun-hezkuntza programa diseinatzea eta antolatzea.
  - Osasun agentea bilatzea.
  - Jarduerak aurrera eramateko beharrezkoa den materiala biltzea.
  - Proiektua martxan jartzeko diru laguntza eskatzea.

4.7 BALIABIDE MATERIALAK/PERTSONALAK ETA EBALUAZIO EKONOMIKOA

Osasun-hezkuntza programa honek suposatuko duen gastua jakiteko ebaluazio ekonomikoa egitea ezinbestekoa da. Horretarako, erabili diren baliabide materialak eta pertsonalak kontuan hartu dira.

Ikastaro guztiek bi motatako gastuak dituzte: hasierako gastua eta ikastaro bakoitzeko gastua. Hasierako gastua proiektua martxan jartzeko beharrezko errekurtsoek osatzen dute eta behin bakarrik ordaintzen dira. Ikastaro bakoitzeko gastua, aldiz, ikastaro bakoitzean erabiliko diren errekurtsoek osatzen dute eta horiek aldiro ordaindu behar dira.

- Hasierako gastua → **Gastu totala: 1070 €**
  - Panpinak (arruntak) (6) → 300 €
  - Harizko-pilota → 2 €
  - Guraizeak → 3 €
  - Lekua → 0 €
  - USB → 15 €
  - Ordenagailua → 750 €
- Ikastaro bakoitzeko gastua → **Gastu totala: 275 €**
  - Inprimatzekoa → 42.2 €
    - Kartelak: 20 €
    - Triptikoak: 15 €
    - Galdetegiak: 5 €
    - Elikagaien hitzak: 0.05 €
    - Erregistro orriak: 0.6 €
    - Esaldiak: 0.05 €
    - Material didaktikoa: 1.5 €
  - Boligrafoak → 5 €
  - Tipex-a → 5 €
  - Errotulatzaile beltza → 2 €
  - Orri zuriak (paketea) → 4.5 €
  - Zelo-papera → 1.3 €
  - Gel hidroalkoholikoa → 5 €
  - Erizain espezialista (7h) → 210 €

Osasun hezkuntza programa martxan jartzeko eta lehenengo ikastaroaren gastu ekonomikoari aurre egiteko diru-laguntza eskatuko zaio Eusko Jaurlaritzari. Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntzaren arabera, lehenengo ikastaroko gastu guztiak estaltzen baditu partaideek ez dute ezer ordaindu beharko. Aldiz, emandako diru-laguntza ez bada nahikoa partaideek falta dena (ikastaro bakoitzeko gastuen atalari dagokiona) ordaindu beharko dute.

Honelako ikastaro gehiago egiten badira, bigarren ikastarotik aurrera, partaide bakoitzak 25 € ordaindu beharko ditu ikastaro bakoitzeko gastuei aurre egiteko.

4.8 MATERIAL DIDAKTIKOA

Gai multzoetan proposatutako jarduerak garatzeko informazioa Euskadiko Fibrosi Kistikoa Elkartearen eta Espainiako Fibrosi Kistikoa Federazioaren web gunean dauden eskuliburu hauetatik lortu da:

- *"Los tres pilares del tratamiento en fibrosis quística: antibioterapia, fisioterapia y nutrición".*
  - FKren tratamendua osatzen duten 3 pilareak (antibioterapia, fisioterapia eta elikadura) lantzen ditu diziplina anitzeko lantaldearen ikuspegitik.
- *"Guía de apoyo y cuidados para enfermos y familiares con Fibrosis Quística: lo que necesitan el paciente y su familia".*
  - FK duen pertsonari eta horien familiarrei bideratua dago. Gaixotasun prozesu osoaren (aspektu klinikoak, psikologikoak eta sozialak, erizain zainketak, tratamendua, etab.) inguruko informazioa azaltzen da diziplina anitzeko lantaldearen ikuspegitik landuta.
- *"Recetas hipercalóricas para afectados de Fibrosis Quística".*
  - FK duen gaixoak jarraitu beharreko elikaduraren eta osagarrien inguruko pautak ematen ditu. Horrez gain, errezeta ezberdinak azaltzen dira eta elikagaien aporte kalorikoa handitzeko gomendioak ematen ditu.
- *"Recetas para pacientes con Fibrosis Quística con calibración de DHA".*
  - Errezeta ezberdinak eta bakoitzaren nutrizio baloreak azaltzen dira.
- *"Tratamiento inhalado y recomendaciones higiénicas".*
  - Inhalagailu mota ezberdinen funtzionamendua, sendagaien administrazio sekuentzia eta jarraitu beharreko higiene-neurrien inguruko pautak azaltzen dira.
- *"Consejos prácticos para ayudar a tu hijo con la fisioterapia".*
  - Arnas fisioterapia errazteko pautak eta trikimailuak azaltzen dira.

- *“Tratado de Fibrosis Quística”.*
  - Gaixotasun prozesuan parte hartzen duten aspektuen (gaixotasuna, fisiopatologia, diagnostikoa, jarraipena, tratamendua, etab.) inguruko informazioa azaltzen da.
- *“Una introducción a la Fibrosis Quística para los pacientes y sus familias”.*
  - Gaixotasun prozesu osoaren (gaixotasuna, diagnostikoa, aspektu klinikoak, bizitza etapak, errekurtsoak, etab.) inguruko informazioa azaltzen da.

Gidaliburu horiek jarduerak garatzeko lagungarriak izateaz gain azken saioaren amaieran partaideei banatuko zaien gidaliburua (ikus 19. eranskina) garatzeko baliagarriak ere izan dira. Gidaliburu horretan zaintzaile informalei egunerokotasunean laguntzeko eta praktikak errazteko informazioa (jarraitu beharreko elikadura, sendagaien administrazio sekuentzia, arnas fisioterapia egokiaren pautak, higiene neurriak, etab.) azaltzen da.

5. OSASUN-HEZKUNTZA PROGRAMAREN EBALUAZIOA

Ebaluazioa, osasun-hezkuntza programaren azken etapa da eta ezinbesteko erreminta da. Izan ere, parte-hartzaileen eboluzioa ikusteko, planteatu diren helburuak bete diren ala ez jakiteko eta planteatutako jarduerak hobetzeko aukera ematen du. Orokorrean, osasun-hezkuntza programaren eraginkortasuna neurtzeko balio du.

Ebaluazioa egitearen arduradunak, osasun agentea eta osasun-hezkuntza programako partaideak dira. Bi alderdien parte hartzea ezinbestekoa da, ikuspuntu ezberdinak jasotzeko. Ebaluazioa programaren azkeneko saioaren amaieran egingo da eta lortutako emaitzak, prozesua eta egitura eta baliabideak ebaluatuko dira.

Emaitzak aztertzearen arduradunak partaideak dira. Emaitzen atalean, partaideek, osasun-hezkuntza programa hasieran planteatutako helburuak bete dituzten ala ez aztertuko da. Horretarako, lehenengo saioan pasatako galdetegi (ikus 16. eranskina) berdina beteko dute.

Prozesua eta egitura eta baliabideak, berriz, bai osasun agenteak bai partaideek ebaluatuko dituzte. Prozesuaren atalean, saioen, erabilitako metodologiaren, edukien eta jardueren inguruko informazioa jasoko da. Egitura eta baliabideen atalean, aldiz, lekuaren, ordutegien, saioen eta jardueren iraupenaren eta erabilitako materialaren

inguruko informazioa. Horretarako, bi galdetegi prestatu dira, bat, partaideek (ikus 17. eranskina) betetzeko eta bestea, osasun agenteak (ikus 18. eranskina) betetzeko.

6. EKARPEN PERTSONALA

Otsailak 28 eta urtearen arabera 29, gaixotasun arraroen nazioarteko eguna. “Gaixotasun umezurtzak” bezala ere ezagunak, gaixotasun horietako askorentzat ez dago sendaketarik. Hala ere, tratamendu on batekin eta osasun profesionalen esku-hartze eta jarraipen egokiarekin pertsona kaltetuen eta ingurukoen bizi kalitatea asko hobetu da. Gaixotasun arraro horietako bat FK da.

Proiektu honekin, alde batetik, “ezezaguna” den gaixotasun bat ezagutzera eman nahi izan dut. Eta bestetik, gaixotasunak familia-bizitzan eragiten duen inpaktu multidimentsionalagatik osasun-hezkuntzaren beharra azpimarratu nahi izan dut.

Osasun-hezkuntzarekin, haur gaixoen zaintzaile informalek, egoera berrira egokitzea eta hura modu egokian maneiatzea eta gaixotasunarekin bizitzen jakitea lortu nahi da. Prozesu horretan, erizainak hezitzaile moduan ezinbesteko papera du. Hura arduratuko da gaixotasuna familia horien bizitzan oztopo bat ez izatea. Horretarako, horien egunerokotasunean lagungarriak izan daitezkeen pautak eta estrategiak emango dizkie.

Ezagutzak handitzeaz eta jarrerak eta gaitasunak garatzeaz gain, programa honekin ere, haurraren zainketan familiako kide guztien parte hartzea bultzatu nahi da. Izan ere, programa hau zaintzaile informalei bideratua dago eta ez soilik zaintzaile nagusiei. Errebisio bibliografikoa egin ondoren ikusi da, orokorrean, haurren zainketaz arduratzen direnak eta zainketaren pisu handiena daramatenak haur horien amak izaten direla. Gaixotasunak zainketa konplexu asko eskatzen ditu. Beraz, garrantzitsua da horiek partekatzea zaintzaile nagusiaren gainkarga ekiditeko. Orain aipatutakoa, proposatutako programaren alde positibo bat izango litzateke.

Gaixotasun honetan erizainak duen papera eztabaidaezina da. Hala ere, haurra eta horien familiarrei zainketa integralenak eskaintzeko beste osasun profesionalen (fisioterapeuta, psikologoa, etab.) esku-hartzea ezinbestekoa da. Hori kontuan izanik, osasun-hezkuntza programaren hobekuntza arloetako bat bertatik joango litzateke. FK unitatea osatzen duten diziplina anitzeko lantaldearekin elkarlanean arituz gero

